



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



### Gaurkoan bildu gara,

- Adur Ezenarro (Bildu)
- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Joseba Aranburu (Alkatearen izenean)
- Mila Sukia (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Patxi Arrospide (Herritarra)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Irabazi: Edukiontzien ordainketa
3. Ordenantza
4. Hainbat gai: Ibarbia kalea, Oria Garaiko ibaietan hondakinen bilketa, aste berdea.....

### Aurreko aktaren onarpena

Landarlanek bi iradokizun egin ditu:

- Martxoko akta moldatuta bidali al zen galdetzen du eta baiezkoa esan zaio.
- Aurreko hileko bileran errauskailuari buruz egindako adierazpenak aktan azaltzea nahi duela esaten du.
  - o errauskailua egitea injustizia bat da.
  - o Sasieta Mankomunitateari errauskailua egiteak zein eragin izango duen Udalak egiten dituzten ordainketetan galdetzea eskatzen du.

TEKNIKARIA: Mahaiko ordezkariak ez dute berdin pentsatzen errauskailuari buruz. Denen artean adostu behar da gaia mahaiari lantzen dugun ala ez. Gai hau ez dago bilera honetako gai-ordenean eta hurrengo bileran lantzen dugu.

IRABAZI: Nik uste dut debateari ezin zaiola ezetz esan.

BILDU: Bi gai daude modu ezberdinean tratatzeko:

1. Errauskailua behar den ala ez. Gai hau batzuentzako gure esparrutik ateratzen dela esango dute.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



2. Eragin ekonomikoa: Ze eragin izango duen eta nola eragingo digun ordainketetan. Gaikako bilketa tasa kontutan hartuko al dan tarifakazio sisteman.

ORDIZIA ORAIN: Gai hau oso konplexua da eta bilera ahal den eraginkorrena egiteko agian gai-ordenean zehaztu behar dugu errausgailuaren inguruan zein puntu landuko ditugun.

LANDARLAN: Alderdi ekonomikoak izango du eragina. Ingurumenekoak ere bai eta batzuentzat osasunekoak ere bai. Gai baltzutan adostasunera iristea oso zaila izango da. Gehienbat alderdi ekonomikoa landu nahi dugu.

TEKNIKARIA: Sasietari eskatuko zaizkio datuak eta hurrengo mahaietan landuko ditugu.

BILDU: Gaikako bilketa tasa altuak orain arte oso positiboki laguntzen ziguten tasen ordainketetan eta hori horrela jarraitu behar al duen galdetu behar zaio.

Apirileko akta onartu da.

TEKNIKARIA: Aurreko bileran edukiontzi puntutan hezitzaileak jartzeko eskaera egin behar zitzaioela zerbitzutako delegaritzari adostu zen. Eskaera onartu da eta bi pertsona kontratatu dira. Goizeko 6:30etatik 14:30etara eta 14:30etatik 22:30etara. Maiatzak 8an hasi ziren. Udalak zerbitzu honen ordainketa egiten du. Ondorengo puntu hauetan egongo dira:

- Iturtxo
- Juan Amezketa
- Buztuntzan, San Inazio kalean

Beraien lana herritarrek informatzea eta sensibilizatzea da eta ahal badute gaizki egiten duen pertsona identifikatzen saiatuko dira.

Beharren arabera jarraituko da zerbitzu honekin.

TEKNIKARIA: Sasietari hainbat komertzioei isuna jartzeko eskaera egin da eta Sasietako ordenantza erabiltzen da isun hauek jartzeko.

NEKANE: Hezitzaileak nola dakite jendeak ondo egiten duela. Edukiontzira sartzen diren poltsak zein egoeratan dauden nola dakigu. Neurri zuzentzailea gaizki egiten duenari nola jarriko dugu.

ORDIZIA ORAIN: Ez bada gaika ondo bereizten gaikako bilketa tasan hori somatuko zan.

LANDARLAN: Ordiziako ordenantzan neurri zuzentzaileak zehaztu beharko lirateke.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



EAJ: Datuak onak dira. Datuak okertzen hasten direnean neurriak jarri beharko lirateke.

ORDIZIA ORAIN: Puntu ezberdin hauen jarraipena egin beharko litzateke. Sasietari eskatu puntu hauen jarraipena eta karakterizazioa egiteko.

### Irabazi: edukiontzien ordainketa

Carlos-ek gaiaren inguruan prestatu zuen idatzia irakurtzen du.

***"Edukiontzien ordainketaren inguruan ez zen erabaki itxi bat hartu. Mahaian landu genituen beste gai batzuk eta desadostasunarik ez zenez egon, ulertzen zen denak isilean ados geundela eta gaiarekin aurrera egiten genuen. Edo gogorarazi behar dugu edozein desadostasun txikiena izanda ere, asko eztabaidatzen genuela.***

***Ukaezina dena da, gaia mahaian landu zela, gutxienez bi aktatan azaltzen den moduan (2016/01/19 eta 2016/03/02) eta Sasietan egindako bozketaren ondoren egindako bilera batetako aktan ere (2016/06/07). Ukatu ezin dena da nik Ordiziako edukiontzi ordainketaren aurka egin behar zuela defendatu nuela eta mahaian inork ez zuen ezezkorik esan ezta bere erabakia ezkutuan gordetzen zuela esan (Landarlanek bakarrik egin zuen matizazio bat) eta sorpresa izan zan Ordiziako ordezkariak Sasieta Mankomunitatean ez zutenean aurka bozkatu eta ez zutenean inongo adierazpenik egin Ordizia defendatzeko gai honetan.***

Mahaian gai batzuetan ez geunden ados eta eztabaidatuak izan ziren. Mahaian inork ez zuen kontrari jarri Sasietak egin behar zuela edukiontzien ordainketa, LANDARLAN-ek ezik, gai honen inguruko adostasun bat eskatzen zuela.

***Baina orain debatean harrigarriena da, garrantzitsuena bilakatzen ari dela eta eztabaidatzen ari garela adostasun formal batetara iritsi al ginen ala ez eta ez dugula eztabaidatzen gaiaren mamia, hau da, nork ordaindu behar dituen edukiontziak.***

***Zergatik ez zen aurka bozkatu eta debate bat sortu? Ordiziarrak eskubidea dute jakiteko zergatik ez zaien defendatu.***

Ordiziarrak jakin beharra dute gure ordezkariak zergatik abstenitu ziren.

***Aktan irakurtzeak Ordizia Oraineko ordezkariaren iritzi pertsonala Sasietak ordaindu behar zuela, harritu egiten nau. Ordezkari honek bere garaian horrela pentsatuko zuen eta ez zuen inongo bileretan nire hitzen aurka egin baina bere iritzia ez zuen berdin defendatu leku guztietan. Sasietako ordezkariari bere iritzia esan behar zion. Ondorioz, orain garrantzitsuena da eztabaidatzea adostasuna egon zen ala ez, benetako arazoari indarra kentzeko.***



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



2016ko abenduaren 12ko aktan, Ordizia Oraineko ordezkariak, kasu honetan bere izenean, ordainketa Sasietak egin behar zuela esan zuen eta Bilduko ordezkariak ordainketa Sasietak egin behar zuela "beti" esan dutela azaldu zuen. Hau da, denak ados geunden, denak berdina esaten genuen. Baina adostasun hau ez du ematen oso formala izan denik. Beraz, aurka bozkatu behar zen nahiz eta bozketa galdu.

***Laburtuz, egun batetan nahi badute Sasietako ordezkariak ordainketa horren aurka zergatik ez zuten egin azalduko digute. Nire ustetan, mahai inor aurka jarri ez zenez adostutako gai bat zen, gainera logikoa zen udalerriko interesak defendatzen zituenez. Egia esanda, era guztietara Sasietako bozketa galdu egingo zuten baina hau da gertatzen dena erakunde guztietan, partidu politikoen interesak defendatzen direlako udalerriko interesen orde.***

Publikoki esan behar badut ez zela akordio formalik egon, egingo dut, baina oso argi geratu behar da denak ados geundela, beraz, isilpeko adostasun bat zegoela eta norbaitek esaten badu ez zegoela ados kontrakoa esaten ari da.

Jakin behar dena da, zergatik gure ordezkariak ez zuten kontrari bozkatu? Nahiz eta bozketa galduta izan.

Urtarrilak 19ko aktan azaltzen den moduan, mahaiko ordezkari batzuk Sasietako lñakiri edukiontzien ordainketaren inguruko galdera luzatu genion. Bildu eta Irabazik onartu genuen hau egin genuela kezkatuta geundelako beraien erabakia izan zitekeelako Ordiziak ordaintzea eta momentu horretan Sasietako posizioa ez zen oso garbia.

Gogoratu behar dugu martxoak 2ko bileran debatea sortu zela Landarlanek publikoko galdetu zuelako nork ordaindu behar dituen edukiontzia. Horren inguruan, nik planteatzen det gai hau denen artean konpondu behar dugula eta gainera ados egon behar dugula. Horregatik aktan azaltzen den proposamena egiten dut: "mahai honek defendatu eta exijitu behar du Sasietak ordaindu behar duela. Bozketa egiten den momentuan, espero dut Ordiziako bi botoak esango dutela Sasietak ordaindu behar duela".

LANDARLAN: Martxoak 2ko bilera urgentea izan zen eta denak ez ziren azaldu.

TEKNIKARIA: Ordizia Orain eta Bildu ez ziren azaldu.

IRABAZI: Denak aktak irakurtzeko aukera genuen eta gaia hain garrantzitsua izanik kontrari jartzeko aukera ere. Eta azken finean hori eskatzen dut, norbait ordainketa Ordiziak egin behar zuenarekin ados bazegoen esateko eskatzen diot.

Ekainak 7an, Sasietako bilera egin ondoren, hondakin mahai gaia berriro lantzen da. Nik azalpenak eskatzen ditut eta aktan jasotzen den moduan nik esaten dut ez nagoela ados abstentzio hauekin eta bilera horretan,



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



Landarlanek ere bai, Sasietak ordaindu behar zituela edukiontziak esaten du (Bildu ez zegoen bileran).

**BILDU:** Lehenengo bileran guk ere Sasietari galdetu genion nork egin behar zuen ordainketa. Prozesu osoan esaten zen Sasietak ordainduko zituela. Baina Sasietako Iñakik esaten zuen berak ez zekiela.

**IRABAZI:** Martxoak 2ko aktan, oso garbi geratzen da edukiontzien ordainketaren inguruko debate bat egon zela eta Irabazik proposatzen du Sasietari beraiek ordaintzeko eskaera adostea. Eta Ordiziako bi botoak Sasietak ordaindu behar zuenaren aldekoak izatea espero genuen. Eta honi inork, Landarlanek ezik, ez dio inongo eragozpenik jartzen.

**ORDIZIA ORAIN:** Sasietako Juntan erabaki zen Ordiziak ordaindu egin behar zuela, erabaki hau Ordiziako udaletxera bidalita zegoen. Sasietako Ordiziako ordezkarietzat hau sorpresa bat izan zen, guk ez genekien ezer. Erabaki hau hartu zen bigarren aldaketa bat denbora gutxian egiten genuelako esan zuten. Atez ateko aldaketa egitean beste udalerririk baino gehiago gastatu genuelako. Nik guk gaikako bilketa tasa altuak genituela eta Ordiziaren alde hitz egin nuen, guk kostu hau txikitzen ari ginelako beste udalerririk batzuekin konparatuz (Zumarraga, Beasain,...). Abstentzioa izan zen jaso genuen sopsresarengatik, erabakia barruan landu zutelako.

**ORDIZIA ORAIN:** Gainera, neri inork ez zidan esan hondakin mahaiatik ezezkoa esan behar zela.

**EAJ:** Lazkaok aldaketa ez du ordaindu eta hauek ere bi aldaketa egin dituzte denbora gutxian.

**IRABAZI:** Edukiontziak Sasietak ordaindu behar zituela pentsatzen jarraitzen dugu eta horregatik, debate honetatik zerbait positiboa ateratzeko asmoz, denak ados bagaude, dirua bueltatzeko eskaera egin behar dugu. Eta gai honen inguruko ebazpen bat egitea proposatzen dut, hondakin mahai eta Ordiziako ordezkarien izenean eskatuz, diru hau bueltatzea eskatuz eta gainera kontutan hartuz beste batzuk edukiontziak ez dituztela ordaindu. Hurrengo bileran denen artean ebazpen bat lantzea proposatzen dut eta ordezkari guztiak baiezkoa ematen dute.

Hurrengo bilerako gai ordenean edukiontzien ordainketaren erabakiaren inguruko ebazpena landuko dugu, lehenengo puntua izango da.

### Ordenantza

EAJ-k ordenantza lantzeko proposamen bat egin zuen: Sasieta Mankomunitateko artikulua landu eta zerbait aldatu edo gehitu nahi badugu ordenantza eredian aztertuko dugu.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



**BILDU:** Aurretik lan tekniko bat egin behar da, Sasietako ordenantzako artikulua ordenantza ereduko zein artikuluari dagokion zehaztea ondo egongo litzateke.

**ORDIZIA ORAIN:** Edo kapituloka ere landu dezakegu.

**TEKNIKARIA:** Sasietako Mankomunitateko ordenantzako artikulua ordenantza ereduko artikuluekin kontrastatuko ditut.

**BILDU:** Bileretan fokalizatu bakoitzean ze gai landuko dugun.

**TEKNIKARIA:** Sasietako ordenantzan gai batzuk ez dira zehazten: errefusaren gaia erregulatu gabe dago.

**ORDIZIA ORAIN:** Udal kompetentziak ere ez dira azaltzen.

**TEKNIKARIA:** Sasietako ordenantza berri egin behar dutela esan zuten.

Guk gure ordenantza landuko dugu eta guk Sasietako ordenantza berriari ere aportazioak egiteko aukera izango dugu.

### Hainbat gai

#### IBARBIA KALEA

Azken proposamena pixohialen tamainako edukiontzia jartzea izan zen eta Sasietak ezezkoa eman zuen. Ondorioz, bilera bat eskatu genuen.

Ibarbia kaleko adin tartea aztertu genuen: 51 pertsona daude errolatuta eta batezbesteko datua 47,60 urte dira eta 75 urtetik gora 11 pertsona daude.

Soluzioa bat bilatu beharra zegoen eta honako hau adostu genuen:

Ibarbia kalean bertan jarriko dira edukiontzia. Kamioiak egoitza jaisten denean bilduko du eta komertzioetako bilketaren bidez hustuko dira eta edukiontzia Sasietak ordainduko ditu.

Bizilagunekin bilera bat egingo da informazioa emateko eta eskatuko zaie mesedez ahal duenak hondakinak Iturtxora jeisteko.





## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



Hondakin mahaiari ondo iruditu zaio erabakia eta martxan jarriko da.

### HIRI HONDAKINAK IBAIAN

Udalak egin behar dute ibaiaren garbiketa.

Goiekik Ori ibaiaren garbiketa amankomunean garbitu nahi du eta hau lantzen hasi nahi dute. Aurrekontua 12.000 €takoa da baina honekin ez zen erreka osoa garbitzen eta osoa garbitzea zenbat kostatu behar den eskatu da. Urteroko lan bat bezala zehaztu nahi dute. Hurrengo bilera maiatzaren 18an da.

Hondakin mahaiak proposatuko du erreka inguruko empresak ere parte hartu behar dutela ordainketa honetan.

Garbiketa uztailean egingo litzateke, ur emaria baxua delako. Garbiketa 22 egunetan egingo zen eta 11 pertsona egongo ziren lanean.

### ASTE BERDEA (Ekaina hasieran)

Kimikariak: hondakinen inguruko ekimenak antolatuko dira.

LANDARLAN: Hondakin asteko kanpaina berdina egin beharko litzateke. Tupper eta poltsa berrerabilgarriak erabiltzeko kanpaina berriro egin.

LANDARLAN: Dendariekin zerbait egin. Ontziak aurkitu behar dira gero merkatariak erabiltzeko. Film asko erabiltzen da. Agian orain ez dago denborarik.

TEKNIKARIA: Agian azaroko hondakinen prebentzio astean egin daiteke.

LANDARLAN: Hondakinen inguruko informazioa eman beharko litzateke. Hondakinen sorrera igotzen ari da.

NEKANE: Datuen benetako azterketa egin behar dugu.

LANDARLAN: Gaikako bilketa minimoa mantentzen ari gara.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/05/09 Udaletxean 18.00-19:30



### Hurrengo bilera

Ekaineko bilera: ekainaren 6an arratsaldeko 18:00etan.